

**GARAPEN BIDEAN DAUDEN ITSASOKO ENERGIA TEKNOLOGIA BERRIZTAGARRIAK ERAKUSTEKO ETA BALIOZTATZEKO INBERTSIOEN ALDEKO LAGUNTZEN PROGRAMA 2022**

**IX. ERANSKINA. ABAL EREDUA**

**A - MARE – 2022**

[...] Bankuak (aurrerantzean, «Bankua») eta, haren izenean eta ordezkari gisa, [...] jaunak/andreak, egintza honetan behartzeko nahikoa ahalmen izanik ([...](e)ko [...] notario jaunaren/andrearen aurrean eman ziren [...].eko [...].aren [...](e)an, bere protokoloaren [...] zenbakiarekin) eta baliogabetu edo aldatu gabe daudela ziurtatuta.

Lehen errekerimenduan eta solidarioki [...] sozietateari (IFK: [...] eta helbidea: [...] kalea, [...]) (aurrerantzean, «Sozietatea») ABALA EMAN dio ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN aurrean (IKF: [...] eta helbidea: [...] kalea, [...]) (aurrerantzean «Onuraduna» edo «EEE»), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 21. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere EEEko zuzendari nagusiak [adierazi data](e)ko ebazpen bidez Sozietateari emandako aurrerakina itzultzeko betebeharrari erantzuteko; aurrerakina (idatzi letraz) [...] euro (idatzi zifrak) ziren eta 2022-2024 aldiko garapen bidean dauden itsasoko energia teknologia berriztagarriak erakusteko eta balioztatze laguntza programaren esparruan eman zen, [adierazi espedientearen zenbakia] espedientearen barruan.

Hona hemen abal honen baldintzak:

- (i) Bankuak ordena-, eskusio- eta zatiketa-onurei esanbidez uko egiten die, baita edozein motatako defentsa proposatzeari ere.
- (ii) Abal honen eraginpean geratzen dira (idatzi letraz) euroko (idatzi zifrak) aurrerakina eta gehienez urtebetez sortzen diren interesak, baita aurrerakinaren nominalaren % 15 arte ere, balizko erreklamazio judizialaren edo judizioz kanpoko erreklamazioaren kostu eta gastuetarako (aurrerantzean, «Bermatutako zenbatekoa»).
- (iii) Abal hau abstraktua da; beraz, onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea zergatik egikaritzen duen, eta Bankuak ezin izango die eragozpenik jarri bermearen kontura ordaintzeko errekerimenduei, nahiz eta Sozietateak eragozpenak jarri.
- (iv) Onuradunak eskatzen dizkion zenbatekoak ordaindu beharko ditu Bankuak gehienez ere egutegiko bost (5) eguneko epean, betiere errekerimendua idazki bidez eta edozein modutan egiten badio, helbide honetan: [...].
- (v) Onuradunak eskatutako ordainketak egin beharko ditu Bankuak, behin edo gehiagotan, onuradunak adierazitakoaren arabera, baldin eta, oro har, ez badute gainditzen bermatutako zenbatekoa.
- (vi) Onuradunaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, oraingo edo etorkizuneko inolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, kenkari edo atxikipekin gabe eta haiengatik edo haien konturako kenkaririk gabe.
- (vii) Abal honen iraupena mugagabea izango da, onuradunak idazki bidezko adierazpen baten bitartez abalaren kitapena baimentzen duen arte.
- (viii) Berme hau Espainiako Zuzenbidearen arabera arautzen da. Berme honen kariaz sortzen diren eztabaidak Bilboko Auzitegietan soilik ebatziko dira; aldeak Auzitegi horren jurisdikzioaren eraginpean egongo dira eta esanbidez egiten diete uko dagozkien bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Berezian erregistratuta da 20[...](e)ko [...](e)an, eta [...] zenbakia dagokio.

(Lekua eta eguna)  
(Erakundearen izen soziala)  
(Ahaldu(ar)en sinadura)